



GORLIZKO TOPONIMIA JASO ETA FINKATZEKO BEKA DEIALDIA

Kontuan izanik, 1978ko Espainiako Konstituzioaren 3. atalak diola Espainiako hizkuntza ezberdinen aberastasuna babes eta begirune apartak zor zaizkion kultur ondarea direla.

Kontuan izanik Euskal Herriko Autonomi Erkidegoko Administrazioak euskararen normalizazioa lortzeko egiten ari diren ahaleginak.

Kontuan izanik Euskaltzaindia ere euskararen hizkuntza normalizazioa lortzeko egiten ari den lanen artean toponimia jasotzea eta aztertzearena dagoela.

Kontuan izanik Gornizko toponimia oraindik jaso gabe dagoela, eta gure kultur ondarearen zati garrantzitsu bat dela eta bertako hainbat toki, baserri, iturri, mendi izen eta abar desagertu aurretik jaso eta aztertzea komeniko litzatekeela, Udal honek, beka eskainiaz deialdia zabaltzen du ondoren azaltzen diren oinarrien arabera:

1. BEKAREN EZAUGARRIAK

1.1. Gornizko toponimia bildu, sailkatu, kokatu, aztertu eta finkatzeko proposamena egitea izango da beka honen helburua.

1.2. Diru-zenbatekoa: Bekaren zenbateko osoa 18.000 eurokoa izango da. Bekaren diru zati bat bekaren zuzendariaren lana ordaintzeko erabiliko da (ikus 2. puntua).

1.3. Iraupena: Lana egiteko epea 12 hilabetekoa izango da, beka adjudikatzen den egunetik hasita.

1.4. Beka hau ez da ikerketaren ordainsaria izango, bera egiteko laguntza baizik.

1.5. Lana euskaraz aurkeztuko da.

1.6. Lana Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko Euskara Zerbitzuaren ardurapean burutuko da Euskaltzaindiaren gidaripean.



2. *ESKATZAILEAK*

Eskatzaileak (edo lantaldea bada kideetako batek gutxienez) Euskal Filologia ikasketak burututa izan behar ditu, edo bestela euskal hizkuntzalaritzan ezagupen eta trebakuntza egiaztatua izan.

“Toponimoen bilketa eta finkapena Gornizen” gaiari buruzko txostena aurkeztu behar du.

Adjudikaziodunari proiektuaren erantzule izango den zuzendaria jarriko zaio, proiektua zuzentzeko eta koordinatzeko. Zuzendari hori Euskaltzaindiak izendatuko du, eta 2.160 euro jasoko ditu bere lanagatik.

3. *ESKABIDEAK*

Interesatuak Gornizko Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dituzte eskabideak, ondorengo agiri hauekin batera:

a) Espediente akademiko xehatu eta osoa. Jasotako kalifikazioak eta beraien datak agertu behar dira, jatorrizko agirian edo ziurtagiriaren egiaztatutako fotokopian. Lantaldeen kasuetan, partaide orok egin beharko du.

Euskal Filologia ikasketa arautuak egin direla ez badira frogatzen, hizkuntzalaritza ezagupenen, lan esperientziaren edo ezagupen horien adierazgarri direnen diploma edo ziurtagiriak aurkeztuko dira.

b) Curriculum Vitae. Lantaldeen kasuetan partaide guztienak. Era berean, lanbide eta ikerketa esperientzia, egin dituen/dituzten argitalpenak, beste hizkuntza batzuen ezagutzak eta beste datu aipagarriak ere adieraziko dira.

c) Lana nola egingo lukeen/luketen adieraziz memoria bat, ahalik eta zehatzena, ondokoak azalduz, besteak beste:

- Ikerketaren etapak.
- Erabiliko den metodologia.
- Dituen/dituzten bitarteko eta baliabideak.

d) Eskatzailearen/eskatzaileen nortasun agirien fotokopia.



Eskabideak eta gainontzeko agiriak eta geroago egon daitekeen korrespondentzia honako helbidera bidaliko dira:

GORLIZKO UDALA
Erregistro orokorra
Elizako plaza 1
48.630 GORLIZ

Erreferentzia: Toponimia Beka Burutzeko Plaza.

4. DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO EPEA

Memoria eta gainontzeko agiriak aurkezteko epea arau hauek iragarkia Bizkaiko Egunkari Ofizialean agertzen denetik hasita 30 egunekoa izango da.

Eskatutako zerbait betetzen ez duten eskabideak eta agiriak jasotzen badira, 7 eguneko epea izango dute akatsak zuzendu edo behar diren agiriak aurkez ditzaten. Horrela egingo ez balute, eskabideak artxibatu egingo lirateke besterik gabe.

5. ADJUDIKAZIO PROZEDURA

Beka hau Gornizko Alkateak adjudikatuko du, Epaimahaiaren proposamena jaso ondoren. Epaimahaia ondorengoek osatuko dute:

Epaimahaiburua:

- Udalaren Alkate-Presidente Jauna edo beraren eskuordea.

Epaimahaikideak:

- Euskarako zinegotzi ordezkaria edo beraren eskuordea.
- Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordearen ordezkari bi.
- Alkateak izendatutako idazkaria.



Balorazioa egin aurretik, Euskal Filologia ikasketa arautuak frogatzen ez dituzten eskatzaileak lehiaketan onartzeko edo ez onartzeko irizpideak ezarriko ditu epaimahaiak.

Hauek izango dira adjudikazio irizpideak, neurri egokiekin:

- a) Eskatzaileek aurkeztutako proiektuaren edo memoriaren aurkezpena epaimahaiaren aurrean aurkeztu eta berorren inguruan epaimahaikideak formulatuko galderei erantzun beharko dizkiete: Otik 30 puntura.
- b) Toponimiari buruzko ikasketa espezifikoa, ikastaroak, etab.: Otik 10 puntura.
- c) Toponimiarekin zerikusi zuzena duten lanetan esperientzia: Otik 10 puntura
- d) Inguruko euskalkiaren ezagutza praktikoa (ahozko proba egingo du epaimahaiaren aurrean): Otik 10 puntura.
- e) Gorniz edo inguruko herriei buruzko lanengatik (Leioa, Erandio, Berango, Sopela, Urduliz, Barrika, Lemoiz, Plentzia eta Getxo): Otik 10 puntura.

Eskatzaileak gutxienezko baldintzak bete ezean, Epaimahaiak bere gain hartzen du deialdi hau indarrik gabe lagatzeko ahalmena. Era berean, zenbait ordezkio izendatuta izango ditu, gutxienezko betebeharrak betetzen badituzte, bekadunek bekari uko egiteagatik edo beste arrazoiren batengatik hutsik geldituko balitz; horretarako lehenasuna ordezkioen hurrenkeraren arabera izango da.

Eskatzaileak Beka eskatze hutsagatik, Epaimahaiaren ebazpenaren aurkako edonolako ekintza judizial edo estrajudizial uko egiten diote.

6. *BEKADUNAREN BETEBEHARRAK*

- a) Bekaren onarpena idatziz adieraztea hasi eta 7 eguneko epean.
- b) Lanaren garapenari buruz aurkeztutako memoriaren arabeko txosten bat aurkeztea hiruhilabetero.
- c) Gornizko Udalaren esku edukitzea egindako lanaren ohar, zirriborro, aurrerapen eta emaitzak.



d) Aurreikusitako planaren edo ikertaldearen osaketaren aldaketen berri ematea. Halakorik ezin izango da egin Gornizko Udalak espreski emandako baimenik gabe.

e) Euskaltzaindiak emandako gomendioak betetzea eta lana burutzeko prozedura eta metodologia jarraitzea.

f) Bekaren amaieran, hiru hilabeteko txostenaren ordeztu, amaiera-lana aurkeztu beharko da. Lan hori euskarri informatikoan (Word) entregatuz gain, lanaren ale bat orrietan entregatuko da.

g) Ikerlana emateko azken epean ez bada lana amaitu, justifikaziorik gabe, penalizazioen bat jarri ahal izango dio Udalak. Hala eta guztiz ere, udalak baimena eman dezake aipatutako epeak luzatzeko baldin eta arrazoiturik ikusten badu. Halaber, bildutako material guztiena kopia (grabaketak, e.a.) Azkue Liburutegian utziko da ikertzaileen erabilerarako. Horretarako, egite eskubideen jabeen baimena eskatu behar dielarik).

h) Beka hau bateraezina izango da beste edozein ikerketa-beka edo lan finko osorik. (Baldintza hau beka eskatzean bete behar da).

Ikerketak ekar litzakeen gastuak bekadunek egin behar dituzte. Halere, Gornizko Udalak ahalik eta gehien lagunduko du berari dagozkion kudeketetan.

7. LANAREN JABETZA

Lanaren jabe egilea bera izango da. Gornizko Udalak berarentzat gordetzen du, hala ere, ikerketaren argitalpen oso edota zatikakoa egiteko eskubidea, baita normalizaturiko izenen erabilera ere. Kasu honetan bekadunak uko egingo dio egile eskubideak jasotzeari.

Gornizko Udalak lana argitaratzea erabakiko balu, horren berri eman beharko die egileei hiru urteko epearen barruan argitaratu behar duelarik. Lehen argitalpen honen ustiapen-eskubideak Gornizko Udalarenak izango dira. Epe hau igarota, egileak bere lana argitaratzeko askatasuna izango luke, beti ere izan zuen bekaren aipamena eginez. Era berean Gornizko udalak argitaratzeari uko egingo balio lehenago argitara dezakete.